



Ekitaldi berean Eguberrietako erakusleihen lehiaketako sariak banatu dira eta lehiaketan bozka eman duten erosleen artean zozketatuko erosketak egiteko txekak banatu dira

Tokiko merkataritzarekin duen konpromisoari eutsiz, urteetan egindako lanari aitortza egin die 2020an erretiroa hartu duten merkatari Udalak. Honekin batera, urteroko legez, Gabonetako erakusleihen lehiaketako sariak banatu dira eta bozka eman duten erosleen artean erosketak egiteko txekak banatu dira.

Sariak ematen Leire Artola alkatea eta Elena Ruiz zinegotzia izan dira. Amaitzean den urte honek pandemiak eragindako osasun krisiaren ondorioz, gogor kolpatu ditu Beasaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak eta udal agintariak sektore honekiko babesa, gertutasuna eta laguntza mantentzen jarraitzeko konpromisoa berretsi dute. Udal gobernuarentzat, tokiko ekonomia bultzatzeko eta indartzeko garrantzitsua da udalerriko denda eta saltokietan kontsumitzea.

Gertukoa konfiantzazkoa izateaz gain arreta pertsonalizatuarekin lagunduta doalako. Tokiko merkataritzaren ezaugarriak balioan jarritz, herri izaera indartzeko laguntzen du eta sozializaziorako elementu ezinbestekoa dela aipatu du tokiko merkataritza indartsua edukitzea.

Erretiroa hartu duten merkatarietako omenaldia

Atxikimenduzko hitz hauen ondotik omenaldi eta sari ematearen txanda izan da. Lehenik 2020an erretiroa hartu duten merkatariak deitu eta oroigarri bana eman zaie. Aurtengo omenduak hauek izan dira: Fotoetxeko Joxe Mari Telleria eta Gema Mujika, Orki arropa-dendako Mari Carmen Liebana eta Maria Jesus Irizar Altuna (aurten zendua), Maritxu janari-dendako Maritxu Garmendia Altuna eta Maiur ohial-dendako Maria Urbizu.

Eguberrietako erakusleihen lehiaketako denda irabazleak

Bareak elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatzen duen Eguberrietako erakusleihen lehiaketako epaimahaia herritarren botoek eta Bareak elkarteko eta Udaleko ordezkari banak osatu dute. Edizio honetan 23 saltokik parte hartu dute eta emaitza hauxe izan da:

- 1go saria, Andreak jantziak denda
- 2.go saria, Kux-kux ume arropa-denda
- 3.go saria, Jauregi optika

Hiru sarituek garaikurra jaso dute eta denda irabazleak, hau da lehenengo sailkatuak, urte osorako erakusleihoa apaintzeko doako zerbitzua irabazi du (4 erakusleiho, bat denboraldi bakoitzeko).

Erosketa txekoen irabazleak

Herritarren bozketan parte hartu dutenen artean egindako erosketa txekoen zozketan hauek izan dira irabazleak:

- 200€: Marina Pérez
- 100€: Leire Nazabal
- 100€: Itziar Aizpurua

Aurten erretiroa hartu duten merkatariak omendu ditu Udalak

Azken eguneratzea: Osteguna, 31 Abendua 2020 17:00

Argitaratua: Azteazkena, 30 Abendua 2020 15:59



Merkatari omenduak



Saltoki sarituak

Aurten erretiroa hartu duten merkatariak omendu ditu Udalak

Azken eguneratzea: Osteguna, 31 Abendua 2020 17:00

Argitaratua: Azteazkena, 30 Abendua 2020 15:59



1. saria: Andreak
jantzi denda



2. saria: Kux-Kux
haurren erropa-
denda



3. saria: Jauregi
optika